

Startinnova V - Banaketa eta komunikazio kanalak

Kanalen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.

Gathering&co-rako erabiliko ditugun komunikazio-kanalak sare sozialak izango dira nagusiki, Instagram eta Twitter izango baitira gure kafetegiaren publizitatea egiteko sare sozial nagusiak.

Sare sozialak sustapenerako eta produktu eta zerbitzuak ezagutarazteko erabiltzeaz gain, web orri bat ere izango dugu, jendeak gure eskaintza eta katalogoaren berri izan dezan. Halaber, webgune horretan eman beharko dute izena bezeroek, izena, posta elektronikoa eta telefonoa jarrita, antolatzen ditugun irakurketa-jardueretan eta eztabaidetan parte hartzeko; hala ere, kafetegian bertan ere eman ahal izango dute izena. Horrez gain, web orrian, nor garen



jakiteko informazio guztia emango dugu. Gainera, formularioetarako atal bat egongo da, non edonork edozein zalantza, galdera edo jakin-min utzi ahal izango dituen, ostean sare sozialen bitartez jasoko dute erantzuna.

Era berean, inaugurazioaren unean, kartelak banatuko ditugu lokalaren inguruan, jendea negozio berri horretaz jabetu dadin, jende gehiagorengana iristeko eta hirian ezagutzera eramateko.

Azkenik, enpresak erabiliko duen banaketa-kanala zuzena izango da; hau da, produktuak establezimenduaren bidez erosi eta salduko dira, bitartekorik erabili gabe. Horri esker, bezeroarekin tratu zuzena izango dugu, leialtasuna hobetuko duena; banaketan kostu txikiagoak izango ditugu; eta produktuak bezeroei guk geuk saltzean, haien iritziak jakin ahal izango ditugu, produktuetan hobekuntzak egiteko aukera emanez.